# Soziolinguistika: oinarrizko testuak

**Iñaxio Agirre: «Euskararen egoera eta normalkuntzarako klabeak»**
**Koldo Zuazo: «Euskararen batasuna»**
**A. Urrutia: «Euskararen erabilera, herritarren arteko harreman juridikoetan»**
**Eusko Jaurlaritza-HPIN: *Soziolinguistikazko mapa***

**AGIRRE, Iñaxio: «Euskararen egoera eta normalkuntzarako klabeak», in ELE-5, AEK, Bilbo 1989, 11-46 orr.**

Formato berrian datorren aldizkari hau batez ere euskararen irakaskuntzari loturik dauden gai eta auziez arduratzen da. Halaz ere, zenbaki honetan bederen, badator soziolinguistikaren eremuan kokatzen den artikulu bat eta gure hemengo aipamena horretara mugatuko da halabeharrez.

Artikulak bi zati nagusi ditu. Bata «Egoera minorizatua» deiturapean, eta bestea «Irtenbidea» izendatu ditu Iñaxiok. Lehendabizikoan, besteak beste, honako kontzeptuok jorratzen ditu: hizkuntzaren funtzioak, hizkuntzaren iraupena eta desagerpena, elebitasunaren anbiguitatea, elebitasun orekatuaren ezintasuna, elebitasun aldebakarrekoa, egoera minorizatua eta diglosia, erabilpen linguistikoaren erregularitateak, euskararen gaur egungo egoeraz diagnostikoa. Biga-

rren atal nagusian, ostera, gaiok darabiltza aztergai azkeneko bi puntutan: «Euskararen berreskurapenaren prozesuaren ardatzak» eta «Euskararen normalkuntz prozesuaren planifikazioa».

Euskararen militanteengan azken urteotan eraginik erabakiorrena izan duten soziolinguisten idazlanetan oinarritzen da Iñaxio bere lan hau taxutzeko. Lehenengo zatian Ll.V. Aracil-en teorizazioan oinarritu omen da, euskararen gaur egungo egoeraren diagnosiari buruzkoa berriz Iñaki Larrañagaren lanetan sostengatzen da, eta azkenekoan "Txepetx" hartu bide du gidaritzat. Aukera aparta testuon irakurketa euskararen militantearentzat; ez bait da beti autoreok euskaraz eta gainera modu irakurterrazean hausnartzeko abagadunerik izaten.

**ZUAZO, Koldo: «Euskararen batasuna», in IKER-5, Euskaltzaindia, Bilbo 1988, 413 orr.**

Euskararen batasunaren kondairaz inoiz inork iturri oparoetatik edan nahi badu, derrigortua aurkituko du bere burua Zuazoren tesi-lan honetara jotzera. Batzuen eta besteen lekukotasun zuzenak dakartza, iturri-dokumentuak denak, eta zehatz-mehatz adieraziak datu bakoitza bere testuinguru jakinean kokaturik. Jean Haritschelharek aitzin solasean dioen bezala alegia: «(...) batasunerako bide hertsi, patartsu eta nekearen bihurgune guziak aztertu ditu Koldo Zuazo Zelaietak, neurtu aurrerapenak, izartu atzerapenak, idazle guzien iritziak agertuz nahiz euskaldunenak nahiz atzerritarrenak».

Bere tesi-lanean euskararen standardizazioa hartu du gai-ardatzat Koldok, berak sarreran dioskun legez: «Euskararen standardizazioaren nondik-norakoa aztertzea da lan honen helburu nagusia». Guk hemen xehetu nahi genukeena haatik, lehen atala besterik ez da; besteak, bai standardizazioari dagozkionak eta bai «Hizkuntza barruko indarren eragina» delakoa, aipamen soil honetan utziz.

Euskararen baitan kanpoko indarrek nola eragiten duten jakiteko lehendabiziko atalean ondoko auziok arakatzen ditu hurrenez hurren: indar banatzaileen eragina, Euskal Herria herri puskatua, euskara eta administrazioa, euskara eta irakaskuntza, Euskara eta Eliza, euskara eta hiriguneak, euskara eta komunikabideak eta indar bateratzaileen eragina. Bistan da euskararen historia soziolinguistiko baterako gai-zerrenda jakingarria dagoela hor, nahiz eta teoria soziolinguistikoaren arloan ekarpen berezirik ez agertu orrialdeotan.

Hizkuntzaren barneko bilakabidean kanpokoak baldintzapen eragingarriak dituela ondorioztatzen du egileak azkenean. Are gehiago, «erabateko eragina» izan dutela uste du: «Euskarak bizi izan duen bilakabidearen azterketak erakusten duenez, erabateko eragina izan dute hizkuntzaz kanpoko indarrek beronen standardizaziogintzan. Gure eritziz horrelaxe baizik ezin uler daiteke, neurri zabal batean behinik behin, bai euskara standardaren eraikitze berankorra —nahiz eta asmo hau lehen idazleengandik (Leizarraga, Axular, Tartas, Sarako Etcheberri...) hasita denen gogoan egon den— (...)».

Euskararen standardizazio beranko-

rra esplikatzeko orduan bi arrazoi aipatzen ditu Koldok: «Bi motatako arrazoiak ikusi uste izan ditugu guzti honetan: euskara zenbait esparrutatik (administrazioa, irakaskuntza, hirigune eta industri giroko bizitzatik, komunikabideetatik...) baztertua eta erderek ordezkatua egotea batetik eta, bestetik, Euskal Herriaren beraren zatiketa».

**URRUTIA, Andres: «Euskararen erabilera, herritarren arteko harreman juridikoetan», in JAKIN-55, 163-182 orr.**

«Euskararen Lege-Araubideari Buruzko Jardunaldietan» aurkezturiko ponentzia dugu honako hau. Urrutiak, izenburuak besterik gabe argi adierazten digun legez, ez ditu euskararen harreman juridiko guztiak ikergaitzat hartzen. Hastapenean bertan zehazten digu bere azterketak izango duen xedea: «(...)gure helburutzat, harreman zibil eta merkatal arlokoak hartu ditugu, "negozio juridiko" kontzeptuaren ildotik (hala nahita noski)».

Bere ikerbideak lau ardatz nagusi izango ditu idazlanean barrena. Lehendabizikoan, «Harreman juridiko pribatuetan nagusi den askatasun linguistikoaren printzipioaren azalpena» arakatzen digu. Bigarrengoan, «Gai honi buruz Konstituzioak, Autonomi Estatutuek eta Hizkuntza Normaltzeko Legeek duten eragina» jorratzen du. Hirugarrenik, «Zuzenbide zibileko zein merkatal arloko zenbait arazo puntualen azterketa, erregulazio berri honen argitan» delako azalpena burutzen du. Eta, azkenik, «Euskara eskubide legez, harreman juridiko pribatuetan» zertan den agertzen du.

Azterketa osoaren buruan, ondorio-gogoeta moduan, Zuzenbidearen eragin-eremua ez dela esparru ofizial publikora murrizten esaten du. Pertsona pribatuen arteko harremanetan ere euskararen normalkuntza lortu nahi izanez gero, euskararen status juridikoa euskaldungoaren aldera lerratu beharko litzatekeela alegia. Zuzenbidea, bere usterako, ez da egitura formal hutsa, ez da egon dagoen elementu estatiko soila, ondorio erabakiorrak dituen baldintzapen objektiboa baizik. Bere hitzetan esateko, zera litzateke: «Zuzenbidea dugu askotan horren giltzarria. Berau bait da gizarte baten (eta gizarte horren) lege, arau eta mekanismo juridikoak biltzen dituena eta beraren bidez, esaterako, gizarte honek euskara berreskuratzeko ahaleginei forma eta edukina ematen dizkie».

**EUSKO JAURLARITZA-HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA: *Soziolinguistikazko Mapa: 1986. urteko erroldaren araberako Euskal Autonomi Elkarteko azterketa demolinguistikoa*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1989, 303 orr.**

Liburu eder eta galant honen sarreran aditzera ematen da, «(...) Jaurlaritza-Ituneak euskararen normalkuntza-bidearen aurrerapiderako tresnak honako hauek izango direla dio: Soziolinguistikako Mapa eta Hizkuntz Plangintzarako Mapa». Aurreneko lanabesa prest bide dago hizkuntz plangintzari ekiteko. Mari Karmen Garmendia ere zentzu berean mintzo da Aurkezpenean: «Pentsa dezakegunez, soziolinguistikazko mapa hau ez da euskaltzaleon jakinmina asebetetzeko tresna soil gisa zabaltzen. Badu

mapa honek eginkizun eraginkorragorik. Euskararen osasun-egoera ezagutzeko argibideak, zenbaitetan lausoturik ematen diren arren, eskaintzen dizkigu gure hizkuntzaren geroa zimentarri tinkoetan oinarriturik eraiki ahal izateko». Eragileen asmoak ez dira makurrak, ikus dezakegunez. Geroak esango du halere lanabes hau kolpe huts izan den ala «zimentarri tinko» horiek eraikitzeko tresna baliotsua suertatu den.

Koloretako mapaz eta taulaz apainki horniturik dagoen liburu honek, bere azterketaren azalpena, lau sail nagusitan taxutzen du. Lehendabiziko sail orokorrean, «Hizkuntz gaitasuna eta ama-hizkuntza» delakoan alegia, hiru atal nagusiok jorratzen ditu: «Hizkuntz gaitasuna», «Ama-hizkuntza» eta «Ama-hizkuntza eta hizkuntz gaitasunaren emaitzak». Bigarren saila «Indizeen azterketa»ri dagokio eta honen barrenean «Ama-hizkuntza euskara, bakarrik ala ez, duen biztanleriari dagozkion indizeen azterketa» eta «Ama-hizkuntza gaztelania edo beste erdararen bat dutenekiko indizeak» ageri dira. Hirugarrenik, «Emaitza nagusiak» saila, «Geografiaren ikuspegia», «Adinaren arabera» eta «Egoera profesionalaren arabera» azalduz. Laugarrenik eta azkenik, «Soziolinguistikazko plangintza-mapa lantzeko urraspideak».

Ikerbideak oinarrizko informazio-zutabetzat E.A.E.ko biztanle bakoitzaren ama-hizkuntza eta biztanle bakoitzaren euskararen ezagupen-maila edo hizkuntz gaitasuna darabiltza. Bi hauek hainbat eta hainbat aldagairekin gurutzatzean, ezin uka nolabaiteko hizkuntz egoeraren agerpena mamitzen ez denik. Halaz guztiz ere, honako baieztapenok larregizkoak dira inondik ere: «Euskal Autonomi Elkartean euskararen egungo egoeraren deskribapena egitea» helburutzat hartzea adibidez, edota hemen lortzen diren datu «Horiei esker, Euskal Autonomi Elkarteko biztanleriaren hizkuntz egoera jakitea lortu da». Erdarazko testuan (euskarazkoa ez dago zehatz-mehatz itzulia) zera ere esaten da: «(...) lo cual permite elaborar los índices para interpretar los procesos lingüísticos que están teniendo lugar».

Ikerketa honen arduradunek, damurik, era honetako azterpideez gehiegi sinisten dutelakoan gaude. Egia da, alde batetik, ohartuak daudela aribide honen mugez: «(...) Gainera, oso zaila eta ia ezinezkoa da Erroldako datuetan soilik oinarrituta herritarren ahozko, irakurmen eta idazmen trebetasun-mailak ateratzea». Baina bestetik, azterlanak berez inondik inora eman ez dezakeen informazioa ematen dueneko ustea itsas dakioke irakurleari gorago hona aldatu ditugun zenbait baieztapenetan ikus daitekeen modura. Auzi honetan, Mackey eta beste batzuek esana dute ez dagoela jakintza-iturri sendorik: «Y cuanto más pretenden precisar las preguntas, por ejemplo interrogando sobre el nivel de conocimiento de una lengua, más imprecisas y poco fiables son las respuestas. Poco fiables porque los ciudadanos son reacios a hacerlo superficialmente o guiados por sus actitudes ante las distintas lenguas».

Marcel Cohen-ek esango zukeen gisara, «Existe la aproximación externa, previa a todo intento de interpretación de los hechos». Era horretara bakarrik hauteman daiteke azterlan hau, gainazaleko gertakari soziolinguistikoekiko hurbilpen modura alegia. Jaunaren legea bakoitzari berea

baldin bada, ez diogu ukatuko datuen azalpenerako duen gaitasuna; haatik, ezin aitortuko dio inork horrelako ikerbide bati inondik inora azaldu ezin dituen harreman soziolinguistikoak interpretatzeko eskurik.

*Joxe Manuel Odriozola*

# Ninyoles dela eta

**NINYOLES, Rafael-Lluis: *Estructura social i política lingüística*, Bromera Argital., Alzira 1989.**

Gaztelaniaz[1] argitaratu zenetik hamabost urte pasa ondoren eta bertsio italiarraren[2] hamar urte geroago, Rafael-Lluis Ninyoles soziologo balentziarraren *Estructura social i política lingüística* liburua argitara emana izan da katalanez. Gertaera hau, beraz, forma eta edukinen aspektu bikoitzean baloratu behar da.

Izan ere, liburua argitaratzen den hizkuntzaren izaera ez luke soziolinguistak baztertu beharko. Aldagai garrantzitsua bait da, baldintzatzailea. Katalanez argitaratua izateak, hutsune baten itzulketa eta paradoxa baten ebazpena inplikatzen du, hots: edukin berdintzailea duen liburu bat beste komunitate batzuen, euskaldunaren, galegoaren eta katalanaren berarena ere, desoreka soziolinguistikoa ezartzen duen hizkuntz komunitatearen mintzairan argitaratu izatea. Ez litzateke ahantzi behar merkatu-legeak eta argitaratzeko aukerak ez direla egileek beti kontrolatutako aldagaiak izaten.